# Gazte sortzaileen beka deialdirako oinarriak: Gazte Sortzaileak 2026

# Bases de la Convocatoria de becas para jóvenes creadores y creadoras: Gazte Sortzaileak 2026

**1.—** Gasteizko Udaleko Euskara eta Gazteria zerbitzuek, Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Foru Zerbitzuaren laguntzarekin –administrazio biek partekatzen duten helburua baita– Gazte Sortzaileak beka deialdia sortu dute, euskarazko kulturgintza bultzatzeko asmoz. Beka horren helburuak dira:

a) Gazteen artean euskarazko sorkuntza bultzatzea.

b) Gasteizko euskarazko kultura programazioan, besteak beste, eragitea, gazteek gazteentzat sortutako jardueren bidez.

c) Gazteek beren sormena garatzeko aukera-guneak izatea.

**2.—** Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek Vitoria-Gasteizen edo Arabako lurralde historikoan erroldaturik egon behar dute, eta 16 eta 35 urte bitartekoak izan.

Bi kategoria daude:

1. kategoria: 16-24 urte bitartekoak
2. kategoria: 25-35 urte bitartekoak

Bakarka zein taldeka aurkezteko aukera dago.

Taldeka aurkeztuz gero, taldekide guztiek adinaren baldintza bete behar dute, eta, horregatik, bakoitzaren jaiotze-data zehaztu beharko da eskaera aurkeztean; era berean, eta adinari dagokionez, bi kategorietakoak badira, adierazi beharko dute zein kategoriatan aurkeztu nahi duten lana. Bestalde, erroldari dagokionez, taldekide gehienek erroldatuta egon behar dute Gasteizen edo Arabako Lurralde Historikoaren hiri edo herri batean.

Pertsona edo talde bakoitzak proiektu bakarra aurkez dezake.

Gehienez ere, beka bi aldiz jaso ahal izango da bi deialdi desberdinetan.

Pertsona fisikoak izan behar dira proiektua aurkezten dutenak, eta elkarte edo entitate batean izenean egiten badute hala

**1.—** Los servicios de Euskera y de Juventud del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, con ayuda del Servicio Foral del Euskera de la Diputación Foral de Álava —por ser este un objetivo compartido por ambas administraciones— han creado la convocatoria de becas Gazte Sortzaileak, para promocionar la creación cultural en euskera. Los objetivos de esta convocatoria son:

a) Impulsar la actividad creativa en euskera entre las personas jóvenes.

b) Incidir en la programación cultural en euskera por medio de actividades creadas por jóvenes y para jóvenes, especialmente en Vitoria-Gasteiz.

c) Disponer espacios de oportunidad para que las personas jóvenes puedan desarrollar sus inquietudes creativas.

**2.—** Quienes quieran participar en esta convocatoria deben ser personas empadronadas en Vitoria-Gasteiz o en el Territorio Histórico de Álava y tener entre 16 y 35 años.

Existen dos categorías:

1ª categoría: 16-24 años
2ª categoría: 25-35 años

Hay posibilidad de presentarse individualmente o en grupo.

En el caso de presentarse en grupo, todas las personas integrantes del grupo deberán cumplir el requisito de edad, por lo que habrá que especificar la fecha de nacimiento de cada una de ellas al presentar la solicitud; asimismo, y en cuanto a la edad, si pertenecen a ambas categorías, deberán indicar la categoría en la que desean presentar el trabajo. Por otro lado, en cuanto al empadronamiento, la mayoría debe estar empadronada en Vitoria-Gasteiz o una localidad del Territorio Histórico de Álava.

Cada persona candidata o grupo solo puede presentar un proyecto.

Solamente se podrá recibir la beca en dos convocatorias de años distintos.

Se pueden presentar únicamente personas físicas, y si

adierazi beharko dute eskaeran bertan.

18 urtetik beherakoek gurasoen edo tutore legalaren baimena beharko dute, eskabide orri orokorraren “Ordezkaria” izeneko atala betez.

quisieran tomar parte como miembros de alguna entidad o colectivo, así deberán hacerlo constar en la solicitud.
Las personas menores de 18 años deberán presentar autorización de su padre/madre o tutor/tutora legal, cumplimentando para ello el apartado “Representante” del impreso general de solicitud.

**3.—** Proiektuen eta ekitaldien ezaugarriak:

Beka jasotzeak prozesu osoa euskaraz egiteko konpromisoa dakar, sormen-fasetik hasi eta gauzatu arte: hau da, proiektuak euskaraz sortu, ekoiztu, aurkeztu eta garatu behar dira bere osotasunean. Beharrezkotzat jotzen bada, hautagaiekin bilerak egiteko aukera aztertuko da, proiektuak euskaraz garatuko direla ziurtatzeko.

Bestalde, proiektua Gasteizen edo Araban garatu eta gauzatu egingo da.

Ahozkotasunari estu-estu loturik egongo da, hau da, euskararen ahozko adierazpenak proiektuaren muina izan behar du eta helburu izan behar dute kultura euskaldunari ekarpena egitea. Hartara, proiektuak izaera honetakoa izan daitezke: antzerkia, bakarrizketa, poesia-emanaldia, musika, bertsolaritza, ikus-entzunezkoa, baita diziplinen arteko hibridazioa ere.

Formatu txikiko jarduerak hobetsiko dira.

Lanak jatorrizkoak izan daitezke eta euskaraz sortuak, edo euskarazko lan baten egokitzapena, baldin eta jatorrizko lanaren kalitateak edo interesak hori justifikatzen badute.

Ez dira onartuko itzulpen-lan hutsetan oinarritutako proiektuak.

Proiektuak inoiz taularatu edo jendaurrean aurkeztu gabeak izan behar dira. Era berean, deialdia abian jartzen denerako proiektua hasita badago, adierazi beharko da zein fasetan dagoen, bestelako laguntzarik jaso den proiektuari hasiera emateko eta zein den deialdi honetan aurkeztuko den berrikuntza. Halako kasuetan bereziki aztertuko du epaimahaiak proiektuaren egokitasuna eta, behar izanez gero, xehetasun gehiago eskatuko ditu proiektuaren gainean.

**3.—** Características de los proyectos o actividades:

Compromiso de que todo el proceso se desarrollará en euskera, desde la fase creativa hasta la ejecución: es decir, los proyectos se crearán, producirán y presentarán en euskera en su totalidad. En caso necesario, se contemplará la posibilidad de reunirse con las personas candidatas, para garantizar que los proyectos se desarrollen en euskera.

Por otra parte, se desarrollará y ejecutará el proyecto en Vitoria-Gasteiz o Álava.

Los proyectos estarán estrechamente ligados a la oralidad, es decir, la expresión oral en euskera debe ser la esencia del proyecto y deben tener como objetivo la contribución a la cultura en euskera. Así los proyectos podrán ser de esta naturaleza: teatro, monólogo, recital de poesía, música, bertsolarismo, audiovisuales, o cualquier tipo de hibridación entre estos géneros.

Se primarán las actividades de pequeño formato.

Los trabajos pueden ser originales, creados en euskera, o pueden ser adaptaciones de una obra en euskera, siempre y cuando la calidad y el interés del proyecto o actividad original lo justifique.

Se descartarán los trabajos basados en traducciones.

Deberán ser proyectos no presentados al público ni escenificados con anterioridad. Asimismo, en el caso de que el proyecto esté iniciado a la fecha de inicio de la convocatoria, se indicará en qué fase se encuentra, si se han recibido otras ayudas para el inicio del proyecto y cuál es la novedad que se presentará en esta convocatoria. En estos casos, el jurado valorará especialmente la idoneidad del proyecto y solicitará, en su caso, más detalles sobre el mismo.

**4.—** Parte-hartzaile bakoitzak ondorengoak aurkeztu behar ditu:

A) Eskabide orri orokorra eta II. eranskina (Gazte Sortzaile bekaren berariazko deialdikoa), eskuragarri Vitoria-Gasteizko Udalaren web orrian (www.vitoria-gasteiz.org/euskara) edo Euskara Zerbitzuaren bulegoan (Frai Zacarias Martinez, 2 — 01001— Vitoria Gasteiz).

A.1.) Eskabide orri orokorrari dagokionez, eskatzen diren datu pertsonalak eta norberak adierazi nahi dituenez gain, honakoak zehaztu beharko dira “Azaltzen dut” atalean:

- Proiektuaren izenburua.
- Taldekako proiektua izanez gero, taldekideen izen-abizenak, jaiotze-urtea (taldekide guztiena) eta adieraztea Arabako Lurralde Historikoan erroldaturik daudela.

A.2.) II. eranskina (Gazte Sortzaile bekaren berariazko deialdikoa).

- Ezin da adierazi proiektua eskatzailearekin edo taldeko kideekin identifika dezakeen datu pertsonalik.
- Eskabide orri orokorrean adierazitako proiektuaren izenburu berbera argi eta garbi.

**4.—** Las personas participantes deberán presentar la siguiente documentación:

A) Impreso general de solicitud y anexo II (Convocatoria específica de la beca Joven Creadora), disponibles en la página web del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (www.vitoria-gasteiz.org/euskera) o en las oficinas del Servicio de Euskera (Fray Zacarías Martínez, 2 — 01001— Vitoria-Gasteiz).

A.1.) Respecto al impreso general de solicitud, además de indicar los datos de carácter personal que se solicitan y de lo que cada cual quiera hacer constar, se deberán especificar en el apartado “Expone” los siguientes datos:

- Título del proyecto.
- Si se trata de un proyecto grupal, nombre y apellidos y año de nacimiento de cada una de las personas integrantes; así como declaración de que están empadronadas en una localidad del Territorio Histórico de Álava.

A.2.) Anexo II (Convocatoria específica de la beca Gazte Sortzaileak).

- No se pueden indicar datos personales que puedan identificar el proyecto con la persona solicitante o con las personas integrantes del grupo.
- El mismo título del proyecto indicado en la solicitud

B) Aurreko dokumentuez gain, proiektu bat aurkeztu beharko da:

- Lanaren azalpen zehatza euskaraz.
- Luzera: 2-4 orrialde.
- Jardueraren ezaugarriak, gutxienez honakoak: argumentua, egitura, formatua, landu edo lortu nahi den helburua, kronograma…
- Aurreikusten diren behar teknikoak eta materialak proiektua aurrera eramateko.

C) Proiektuaren aurrekontua.

D) Egoki ikusiz gero, proiektuaren lagina edo erakusgarria, edozein formatutan.

A.2.), B), C) eta D) ataletan ez da ageri behar egileak nor diren, ezta hori jakiteko biderik emango duten daturik ere.

general.

B) Además de la documentación anterior, se debe presentar un proyecto:

- Descripción detallada en euskera del mismo.
- Extensión: 2-4 páginas.
- Características de la actividad, como mínimo las siguientes: argumento, estructura, formato, objetivo que se pretende trabajar o conseguir, cronograma…
- Necesidades técnicas y materiales que se prevén para llevar a cabo el proyecto.

C) Presupuesto del proyecto.

D) Si se considera conveniente, una muestra o prueba del proyecto, en cualquier formato.

En los apartados A.2.), B), C) y D) no se debe desvelar la identidad de la persona que presenta la solicitud, ni dar ningún tipo de dato que pueda conducir a ello.

**5.—** Epaimahaia. Berariazko epaimahaia sortuko da deialdi honetara aurkezten diren lanak balioesteko. Epaimahaia honakoek osatuko dute:

a) Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Foru Zerbitzuak eta Kultur Ekintzen Zerbitzuak izendatutako bi pertsona.

(b) Gasteizko Udalaren Euskara eta Gazteria zerbitzuek izendatutako beste bi.

c) Kultur arloan ari diren gazte (35 urtetik beherakoak), Udalak eta Foru Aldundiak adostutakoak.

d) Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuko pertsona batek idazkari lana egingo du.

**5.—** Se constituirá un tribunal para valorar los trabajos presentados. Se constituirá de la siguiente manera:

a) Dos personas nombradas por los Servicios de Euskera y de Actividades Culturales de la Diputación Foral de Álava.

b) Dos personas nombradas por el los servicios de Euskera y de Juventud del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

c) Dos personas jóvenes (menores de 35 años) consensuadas entre Ayuntamiento y Diputación, que trabajan en el ámbito de la cultura.

d) Una persona del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz realizará las tareas de secretaría.

**6.—** Elkarren arteko lehia baliatuko da bekak emateko. Proiektuak honako irizpide hauen arabera puntuatuko dira:

a) Egitasmoaren definizio-maila eta proiektua garatzeko sorkuntza-prozesuari buruzko xehetasunak: kronograma. Gehienez ere 20 puntu.

b) Proiektuaren kalitatea eta interesa, bi alderdi hauek kontuan hartuta: euskararen ahozko adierazpenak duen pisua eta euskal kulturaren alderdiren bat oinarri izatea. Gehienez ere 40 puntu. Atal honetan hurrengoak balioetsiko dira:

- Proiektuaren izaera eta ahozkotasunak duen lotura.
- Gazteek gazteentzat sortutako jarduerak izatea (zein kolektibo edo interes taldea).
- Beste talde, kolektibo edo eragile batzuekin lankidetzan aritzea proiektuaren sormen, ekoizpen edo kudeaketa faseetan.

c) Proiektuaren originaltasuna eta ezaugarri berritzaileak. Gehienez ere 10 puntu.

Honako hauek balioetsiko dira: berritasuna, originaltasuna eta antzekorik ez izatea.

d) Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Aurrekontua. Gehienez ere 20 puntu.

- Proiektua abian jartzeko benetako aukera dagoen balioetsiko da, bai alderdi teknikoari dagokionez, bai alderdi ekonomikoari dagokionez.
- Proiektuaren aurrekontuan taularatzeari edo erakusteari lotutako gastu guztiak jaso behar dira —ekipo teknikoa edo materialak erostea edo alokatzea, antzerkia, gela edo

**6.—** Las becas se adjudicarán por medio de un proceso de concurrencia competitiva. Los proyectos se puntuarán en base a los siguientes criterios:

a) Nivel de definición del proyecto y detalles sobre el proceso creativo del mismo: cronograma. Hasta 20 puntos.

b) Calidad e interés del proyecto, desde una doble vertiente: el peso de la expresión oral en euskera y tener como base algún aspecto de la cultura vasca. Hasta 40 puntos. En este apartado se valorarán los siguientes aspectos:

- Carácter del proyecto y centralidad de la oralidad en el mismo.
- Creaciones de jóvenes y para jóvenes (qué colectivo o grupo de interés).
- Colaboración con otros grupos, colectivos o agentes en las fases de creación, producción o gestión del proyecto.

c) Originalidad e innovación del proyecto. Hasta 10 puntos.

Se valorará: innovación, originalidad y no existir proyectos similares.

d) Viabilidad técnica y económica del proyecto. Presupuesto. Hasta 20 puntos.

- Se valorarán las perspectivas reales para poner en marcha el proyecto, tanto desde el punto de vista técnico cómo económico.
- Se deberán contemplar en el presupuesto todos los gastos relacionados con el estreno o exposición del proyecto —compra o alquiler de equipo técnico, materiales, alquiler de teatro, sala o sala de exposición, atrezzo...— y soportes

erakusketa-aretoa alokatzea, atrezzoa egitea...— baita publizitatea ere.

e) Proiektuak edukitzea genero-berdintasuna berariaz sustatzen duten ekintzak, gaiak edo elementuak. Gehienez ere 5 puntu.

f) Proiektuak tolerantzia eta kultura eta hizkuntza aniztasunaren aintzatespena berariaz sustatzen duten ekintzak, gaiak edo elementuak izatea. Gehienez ere 5 puntu.

Orotara 100 puntu banatuko dira. Beka jaso ahal izateko proiektuek gutxienez 50 puntu jaso beharko dute.

**7.—** Deialdiak 18.000 euroko diru-zuzkidura du: 15.000 euro Euskara Zerbitzuaren 2026/ 0171.3351.22780 partidatik, eta 3.000 euro Gazteria Zerbitzuaren 2026/ 0116.2371.22734 partidatik. Proiektu bakoitzari ezin izango zaio 4.000 euro baino gehiago eman. Diru-kopuru horietan zergak barne daude, eta —hala badagokio— PFEZaren atxikipena egingo da.

**8.—** Proiektuak puntuazioaren arabera ordenatuko dira kategoria bakoitzean eta bekak horrela esleituko dira, txandaka, 16-24 kategoriatik hasita, diru-kopuru osoa banatu arte: lehenik lehen kategorian puntu gehien jaso duen proiektuari, bigarrenik 25-35 urte bitarteko gazteen kategorian puntu gehien jaso duenari, lehen kategoriaren bigarren proiektuari… eta horrela partidari dagokion diru-kopurua agortu arte.

**9.—** Ordainketak honela egingo dira:

— % 90 ebazpena jakinarazi ondoren, konturako aurrerakin gisa, faktura bidez.
— % 10 proiektua burututakoan, faktura aurkeztu ondoren.

Onuradunak proiektua gauzatuko ez balu edo zehaztutako baldintzak beteko ez balitu, aurrerakin gisa jasotako diru-kopurua itzuli beharko dio Gasteizko Udalari, horretarako araudiak ezartzen dituen baldintzen arabera.

Onuradunak Udalarekiko zerga-betebeharrak beteta izan behar ditu; hori dela eta, ofizioz eskatuko du ziurtagiri hori, eta zerga-betebeharrak bete ez baditu, onuradunari jakinaraziko zaio, eta ez da fakturarik ordainduko, egoera hori konpondu arte.

**10.—** Betebeharrak eta eskubideak

(a) Sarituak esleipena onartzen duela adierazi behar du gehienez 10 eguneko epean. Hala berretsi ondoren, Euskara Zerbitzua eta Gazteria harremanetan jarriko dira hautatuetako bakoitzarekin, lana gauzatzeko berariazko klausulak finkatze aldera.

(b) Sarituek 6 hilabeteko epea izango dute proiektua gauzatzeko, esleipena onartzen dutenetik. Salbuespen gisa, epea luzatu beharko balitz Euskara eta Gazteria Zerbitzuekin adostuko da jarduteko modua. Epe horretan Euskara eta Gazteria zerbitzuetatik —proiektuen jarraipena egingo da (aurrerapenak, zailtasunak, estreinaldi-datak zehaztea…) eta horretarako derrigorrezkoa da antolatzen diren proiektuen koordinazio-bileretara etortzea zein azalpen zehatzak ematea bestelako bitartekoen bidez eskatzen direnean. Era berean,

publicitarios.

e) Ser un proyecto que contenga acciones, temas o elementos que promuevan la igualdad de género explícitamente. Hasta 5 puntos

f) Ser un proyecto que contenga acciones, temas o elementos que promuevan explícitamente la tolerancia y el reconocimiento de la diversidad lingüística y cultural. Hasta 5 puntos.

Se puntuará, por lo tanto, sobre un máximo de 100 puntos. Para poder optar a la beca será necesario obtener un mínimo de 50 puntos.

**7.—** La convocatoria tiene una dotación de 18.000 euros: 15.000 euros de la partida 2026/ 0171.3351.22780 del Servicio de Euskera y 3.000 euros de la partida 2026/ 0116.2371. 22734 del Servicio de Juventud. No se podrá destinar más de 4.000 euros por proyecto. Las cantidades mencionadas se consideran con impuestos incluidos, y todo ello sin perjuicio de la retención de IRPF que se efectuará si procede.

**8.—** Se ordenarán los proyectos según su puntuación dentro de cada categoría y se irán adjudicando alternativamente las cantidades correspondientes a cada proyecto en base a los presupuestos presentados, comenzando por la categoría más joven: primer proyecto correspondiente a la 16-24, primer proyecto correspondiente a la categoría 25-35, segundo proyecto de la primera categoría… y así sucesivamente hasta agotar la dotación económica de la partida.

**9.—** El pago se realizará de la siguiente manera:

— 90 % una vez comunicada la resolución, en concepto de anticipo, presentando la factura correspondiente.
— 10 % una vez concluido el proyecto, presentando la factura correspondiente.

Si la persona beneficiaría no desarrollara el proyecto o no cumpliera las condiciones especificadas en la convocatoria, deberá rembolsar al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz la cantidad percibida como adelanto, en las condiciones que concreta la legislación vigente.

La persona o entidad solicitante deberá de estar al corriente de los pagos con el Ayuntamiento, por lo que se solicitará este certificado de oficio. En el caso de no estar al corriente, se le comunicará a la persona o entidad solicitante y no se abonará factura alguna hasta que no se subsane dicha situación.

**10.—** Compromisos y derechos

(a) Las personas beneficiarias deberán comunicar en un plazo de 10 días que aceptan la adjudicación. Después de esta confirmación el Servicio de Euskera y el de Juventud se pondrán en contacto con cada una de las personas seleccionadas para acordar las cláusulas.

(b) Las personas beneficiarias dispondrán de un plazo de 6 meses para llevar a cabo el proyecto desde que acepten la adjudicación. Si excepcionalmente no pudiesen cumplir el plazo se acordará con los Servicios de Euskera y Juventud como proceder. Durante este periodo se realizará un seguimiento de los proyectos desde los servicios de Euskera y Juventud (avances, dificultades, fechas de estreno…), para lo cual es obligatorio acudir a las reuniones de coordinación de los proyectos que se organicen y, si se utilizan otros medios,

beka hauen zabalpenerako ekitaldirik (prentsaurrekoak, erreportajeak…) egiten bada, derrigorrezkoa izango da parte hartzea. Azkenik, memoria moduan eta, azken ordainketa jasotzeko, estreinaldiaren argazki batzuk edo lanaren bideo-zati esanguratsu batzuk.

ofrecer explicaciones concretas cuando estas se soliciten. Asimismo, será obligatoria la participación en los actos de difusión de estas becas (ruedas de prensa, reportajes…). Por último, a modo de memoria y, para recibir el pago final, se remitirán unas fotos del estreno o fragmentos de vídeo de momentos significativos de la obra.

(c) Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuak eta Gazteria Zerbitzuak proiektuaren estreinaldia antolatu ahal izango dute Gasteizen.

Beka honen baitan sortzen diren lanak zabaltzeko orduan, berariaz aipatuko da Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak sustatzen duten Gazte Sortzaileak deialdiaren baitan sortutako lanak direla. Horretarako GAZTE SORTZAILEAK logotipoa edo marka txertatuko da proiektuan, bai estreinaldian, baita geroko emanaldietan ere. Onuradunek estreinaldia beren kabuz egiteko eskubidea dute, Gasteizko Udalak 8 hilabetean horretarako pausurik ematen ez badu, edota alde biek horrela adosten badute

(c) El Servicio de Euskera y el Servicio de Juventud del Ayuntamiento podrán organizar el estreno del proyecto en Vitoria-Gasteiz.

En la difusión pública de estos proyectos se deberá hacer constar explícitamente que han sido creados en el contexto de la beca “Gazte Sortzaileak” promovida por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y por la Diputación Foral de Álava. Para ello en se insertará el logotipo o marca GAZTE SORTZAILEAK, tanto en el estreno del proyecto, como en las sesiones posteriores. Las personas beneficiarias podrán optar por organizar el estreno por su cuenta, si en un plazo de 8 meses, el Ayuntamiento no diera pasos para organizar dicho estreno, o si ambas partes así lo acordaran.

(d) Sormena sustatzeko eta laguntzeko asmoz antolatu den deialdia izanik, sariaz gain, irabazleek tutoretza profesional bat izan ahal izango dute sormen lana prestatzeko. Hala izatekotan, Arabako Foru Aldundia arduratuko da horretaz; baita lan sarituen promozioa egiten laguntzeaz ere.

Onuradunak, eskabidea egiteko orduan, zein izango duen tutore erabakita badu, II. eranskinean adieraziko du; eta oraindik erabaki gabe badauka, adierazi ahalko du 2026ko irailaren 13ra arte, honako helbide elektroniko honetara mezu bat bidaliz: gaztesortzaileak@vitoria-gasteiz.org. Data horretatik aurrera ez da onartuko tutore eskaerarik.

(d) Siendo una convocatoria que tiene por objeto la promoción e impulso de la actividad creativa, los proyectos seleccionados podrán contar con un servicio de tutorización a cargo de profesionales de ese ámbito, tanto para tareas creativas como para tareas de promoción, a cargo de los servicios de la Diputación Foral de Álava.

La persona beneficiaria si ya ha decidido a la hora de realizar la solicitud a cargo de quién será la tutorización lo indicará en el anexo I. Si todavía no lo ha decidido, podrá indicar quién se encargará de los trabajos de tutorización hasta el 13 de septiembre de 2026 enviando un mensaje a la siguiente dirección electrónica: gaztesortzaileak@vitoria-gasteiz.org. A partir de esa fecha no se admitirá ninguna solicitud de tutorización.

**11.—** Koordinazioa eta jarraipena

Jarraipen batzorde bat eratuko da, proiektua behar bezala garatzen dela ebaluatzeko eta bermatzeko. Proiektuetan egokitzapenik edo aldaketarik proposatuko balitz, batzorde horri dagokio proposamenak baimentzea.

**11.—** Coordinación y seguimiento

Se creará una comisión específica para el seguimiento y la evaluación del proyecto. Si se propusiera alguna modificación o adecuación de los proyectos presentados, corresponderá a esa comisión autorizarlas.

**12.—** Proiektuak aurkezteko azken eguna 2026ko ekainaren 30a izango da.

Lanak Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira — Teodoro Dublang margolaria 25— edo gizarte etxeetako Herritarrak Laguntzeko Bulegoetan. Horrez gain, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoa aintzat hartuko da.

Proiektuak aurkezteko orduan zalantzarik izanez gero, interesdunek helbide elektroniko honetan argibideak eska ditzakete: gaztesortzaileak@vitoria-gasteiz.org.

Interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

**12.—** El plazo límite para presentar las solicitudes será el 30 de junio de 2026.

El proyecto deberá presentarse en la siguiente dirección en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz —Calle del Pintor Teodoro Dublang 25— o en las oficinas de atención ciudadana de los centros cívicos. Por lo demás, se tomará en consideración lo previsto en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015.

Para consultar cualquier duda sobre la presentación de proyectos las personas interesadas pueden hacerlo en la siguiente dirección electrónica: gaztesortzaileak@vitoria-gasteiz.org.

La presentación de la solicitud por parte de las personas interesadas conlleva la aceptación explicita de estas bases.

**13.—** Akatsak zuzentzea.

Proiektuek ez badituzte oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen, edo bertan galdatutako agiriak ez baldin bazaizkie gehitzen, 39/2015 Legearen 68 artikuluaren ildotik, eskatzaileei 10 eguneko epea emango zaie akats eta okerrak konpondu edo falta diren beharrezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber ohartaraziko zaie hala egin ezean eskaera bertan behera

**13.—** Subsanación de defectos en la solicitud.

Si se advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto u omisión, se requerirá al interesado para que en un plazo de 10 días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, en base al artículo 68 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas. Igualmente se indicará que, si así no lo hiciera, se le tendrá por

utzitakotzat joko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, eta lege beraren 21 artikuluak aurreikusitako ondorioak izango dituela horrek.

desistido de su petición, y se archivará, aplicándose lo previsto en el artículo 21 de dicha ley.

**14.—** Lege oharra.

Aurkeztutako proiektuaren jabego intelektualari buruzko erreklamaziorik egongo balitz, proiektua aurkeztu duten pertsonak izango dira horren erantzule.

**14.—** Aviso legal.

Las personas participantes son las únicas responsables de cualquier reclamación que se pueda dar referente a derechos de propiedad intelectual del proyecto presentado.